

IL AZALPEN PROBA • <i>Izozteko adina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Eskularru beltzak jantzi eta fusilaren zementuzko oinarria finkatu du, horretarako beharrik ez dagoen arren. Sentsore fotoelektrikoaren sakagailuarekin ez dago armaren katua ukitu ere egin beharrik (forma hori ematen diete oraindik armei, baina tradizio hutsagatik da, ukitu retro bat eransteke baino ez). Sentsore horren bidez, sakadak eragingo lukeen desbideraketa oro saihestea lortzen da. Armaren bidez teleskopikoki jasotako Guggenheimeko sutunpa-tren geltokiko sarrera anplifikatua dauka horma zuriaren gainean, eta eskala errealean baino are handiago ikusiko du bertan bere begipuntuaren xedea. Hain zehatza da eskaner kirurgikoetarako erabiltzen duten software pirata hori ze, ez soilik bihotza, bihotzaren sarrerako aorta arteria bera ere tiroka baitezake arazorik gabe, doitasun milimetrikoz, bete-bete. Haur jolasa. Errazagoa ezin.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Izozteko adina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Etxetik ez ateratzeko agindua eta hiri-harresiez bestaldeko eremuaren kontrako babes-geruzaren gotortzea sartu ziren indarrean.*

*Abdul Gerrikagoitiak, larrialdiak bultzaturik, bildua zuen krisi kabinetea. Tartean da Aintzane Obereyskere, kultur sailburua. Lakuako planetariumean adi-adi jarraitzen zituzten denek Baobileko inbasioaren irudiak.*

*–Do we know zerbait jatorriari buruz?*

*Euskararen jatorriari buruz deus jakin gabe jarraitzen zuten, arrastorik ere ez –Big Ben-a eta bostetako tea jotzen zituzten arren zenbait mihi gaiztok euskara bilbatuaren jatorri-, baina espaziontzien identifikazioa askoz ere errazagoa zen.*

*–Sylesia planet-ekoak dira. Def-con-2, Gerrikagoitia jauna.*

*–Rings a bell... Ez dugu Sylesian enbaxadarik izan sekula?*

*–Sagarra Goi Sylesiatik ekartzen zuten gure sagardogileek, hemen ekoizten dena ez baita enough euskaldungoaren sagar-hats esnifazio eskaerari erantzuteko... Chainisek Saturnoko sagasti-negutegiak orbitan jarri zituzten arte. Orain chainisekin dugu tratua. Itxi egin genuen Sylesiako delegazioa, it was critical...*

*–And a waste of money...*

IL AZALPEN PROBA • <i>Izozteko adina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu*ri* egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Guggenheim sutunpa-tren geltoki ganean esekita jarraitzen zuten allien sylesiarrek, baina ez zuten erasora pasatzeko intentziorik, itxuraz. Tentsioa handia zen, hala ere. Euskal Protektoratuko agintariak larri zebiltzan. Abdul Gerrikagoitia lehendakaria eta haren eskuineko eskua Aintzane Obereyskere ari ziren Lakuako planetariumetik krisia monitorizatzen. Mustafa Bergarak Nikkei indizeari begira jarraitzen zuen.*

*–In days like this Goopple lenteak aktibatu eta garai hobe batera alde egiteko gogoa pizten zait... –esan zuen lehendakariak.*

*–A l’avenir ala iraganera? –jakin nahi izan zuen Aintzane kultur sailburuak.*

*–Orreagako batailara, zer iruditzen?*

*–Kar, kar... Aukeran Mikel Laboaren concierto batekin konformatuko nintzateke. C’est mieux... Askoz ere txukunagoa eta intentsoagoa.*

*–Kulturjunkie bat zarelako da hori. Ni ekintza gizona naiz... Action man!*

*–Maybe, baby...*

*–That’s new! Noiztik Aintzane proletinoa bilbatuaz mintzatzen? Journalistak enteratzen badira...*

*–Estres handiko uneetan bakarrik, je ferai une exception...*

*–Fucking alliens...*

*–Agian euren kabuz alde egingo dute...*